



EKONOMIA ZIRKULARREAN BERRITZEKO DIRULAGUNTZAK  
- 2022ko deialdia -  
3. lerroa. ETE Zirkularra

ERANTZUNKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Entitatearen legezko ordezkaria

Jaun/Andrea: .....

NAN zenbakia: .....

(Adierazi erakundearen izena) ordezkatzuz: .....

Proiektuaren izenburua: .....

Proiektuaren akronimoa: .....

IFZ: .....

Helbide soziala: .....

Jarduera ekonomikoetako epigrafea: .....

Proiektua gauzatuko den zentroko helbidea: .....

Erantzukizunpeko adierazpenak

Lehenengoa.- Bateragarritasun-adierazpenak<sup>1</sup>

- Adierazitako entitateak  BAI  EZ du eskabiderik aurkeztu eta/edo laguntzarik eskuratu helburu bera duten proiektuetarako edo helburuarekin zerikusia duten edo helburu horren zati bat beste eskaera edo emakida batean sartuta duten proiektuetarako, data honetara arte, jarraian adierazten diren erakunde publikoetan edo pribatuetan.

Proiektuaren izenburua Deialdi honetan aurkeztua	Proiektuaren izenburua Beste erakunde bati aurkeztua	Erakundea	Egoera	Eskatutako zenbatekoa	Emandako zenbatekoa
			<input type="checkbox"/> Ukatua <input type="checkbox"/> Eman <input type="checkbox"/> Izapidetzen		

<sup>1</sup>Erakunde eskatzaileak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio bestelako dirulaguntzarik jaso ote duen edozein administraziotatik, bai eta dirulaguntza eman duen organoa eta zenbatekoa ere, egoera horren berri izan eta hurrengo hamar egun balioduneko epean.

**Bigarrena.- Zehapenei buruzko adierazpenak**

Aipatutako erakundeak ez du dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zehapen penal edo administratiborik, ez eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere.

Aipatutako erakundeari ez zaio zehapen irmorik ezarri laguntza publikoak ematea jatorri duen zehapen prozedura batean edo izaera horretako programetan parte hartzea eragozten duen beste edozein prozeduratan, eta zehapena betetzeko denbora tartean dago. Erakunde eskatzailea mota horretako itzultze edo zehapen prozedura batean badago, laguntza emateko edo, hala badagokio, laguntza ordaintzeko, prozeduraren emaitza ikusi beharko da, horren baldintzapean eman edo ordainduko baita laguntza.

Aipatutako erakundeari ez zaio zehapen espedienterik egin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin bat etorriz.

**Hirugarrena.- Beste laguntza batzuei buruzko adierazpenak**

Markatu dagokiona

Aipatutako erakundeak ez du Europar Batasuneko Batzordeak legez kanpokotzat eta merkatu bateratuarekin bateraezintzat jo duen laguntzarik eskuratu.

Aipatutako erakundeak laguntza horietako bat edo batzuk eskuratu ditu eta horiek, interesak barne, itzuli ditu.

Aipatutako erakundeak laguntza horietako bat edo batzuk eskuratu dituela eta ez ditu itzuli.

**Laugarrena.- Minimis laguntzei buruzko Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 Erregelamendutik (EB) eratorritako beste betebeharrak espezifikoki batzuei buruzko adierazpenak**

Markatu dagokiona

Erakunde eskatzaileak ez du minimis laguntzarik jaso azken 3 urteetan, abian den urtea barne dela.

Erakunde eskatzaileak minimis laguntza jaso du azken hiru urteetan aurrekontu publikoen kargura finantzatuta erakunde publikoetatik edo erakunde pribatuetatik.

1407/2013 Erregelamendua, Batzordearena, 2013ko abenduaren 18koa, minimis laguntzei buruzko tratatuaren 107 eta 108 artikulua aplikatzeari buruzkoa (DOUE L 352, 2013.12.24)

Erakundea	Deialdia	Onespen-data	Onespen-zenbatekoa	Jasotako zenbatekoa	Jasotze-data

<sup>3</sup>Entitate eskatzaileak jasotako minimis laguntza osoa ezin da 200.000 eurotik gorakoa izan, abian den zerga-ekitaldia eta aurreko bi ekitaldiak hartzen dituen aldian zehar.

**Bosgarrena.- Beste baldintza batzuei buruzko adierazpenak**

Aipatutako erakundeak ez du lehiaren jokoa eragotzi, murriztu edo faltsutu dezakeen jardunik garatzen.

Aipatutako erakundeak ez du eskatuta izango borondatezko konkurtsoan dagoela deklaratzeko, edozein prozeduratan kaudimengabetzat jo izatea, konkurtsoan deklaraturik egotea, salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek, esku hartze judizialaren pean egotea edo desgaitua izatea, Konkurtso Legearen testu bategina onartzen duen 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako desgaitze aldia amaitu gabe dagoela.

Aipatutako erakundeak ez du armak ekoizten, merkaturatzen eta finantzatzen, Herrialde Pobreteko Justizia eta Elkartasunerako Gutunari buruzko abenduaren 28ko 14/2007 Legean xedatutakoaren arabera

Aipatutako erakundeak ez du jarduerarik garatzen honako sektore hauetakoren batean: (I) arrantza eta akuikultura, (ii) nekazaritzako produktuen lehen mailako ekoizpena, eta (iii) nekazaritzako produktuak eraldatzea eta merkaturatzea 1407/2013 Erregelamenduen 1.1.c) artikuluan aurreikusitako kasuetan.

#### **Seigarrena.- Entitatearen eraketari buruzko adierazpena**

Aipatutako erakundea 2022ko urtarrilaren 1a baino lehen eratu da.

#### **Zazpigarrena.- Krisi-egoerari buruzko adierazpena**

Aipatutako erakundea ez da krisian dagoen enpresa bat, krisian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko estatuko laguntzei buruzko zuzentarauen definizioaren arabera (DO, C 249, 2014-07-31).

#### **Zortzigarrena.- Enpresaren tamainari buruzko adierazpena**

Entitate eskatzaileak adierazten du honakoa dela:

Enpresa txikia

Enpresa ertaina

Enpresa handia

Eragin horietarako, ETEtzat hartuko da 5 eta 250 pertsona arteko plantilla duen erakundea, lanaldi osoko urteko baliokideetan. Langileen zerrenda nominalaren (RNT) baliokak hartuko dira kontuan (azken RNT, lehengo TC2 ordezkatzeko duena)
---

#### **Bederatzigarrena.- Emaitzak hedatzea**

Enpresa eskatzaileak konpromisoa hartzen du proiektuaren emaitzak - Konfidentzialtasunari lotuta ez daudenak - zabal hedatzeko, hitzaldien, argitalpenen, sarbide askeko oinarrien edo doako edo iturri irekiko programa informatikoen bidez..

#### **Hamargarrena.- Erakunde onuradunen betebeharrak**


Erakundeak, indarrean dagoen arauan aipatzen diren diru-laguntzen onuraduna izateko betebeharrak betetzen dituela eta bere eskutan dagoela egoera hori frogatzea dokumentazioa. Erakundeak, diru-laguntzaren prozesu osoan zehar, betebeharrak betetzeko konpromisua hartzen du.

Hemen jasotako datu guztiak egiazkoak direla eta osorik daudela, baita aurkezten dutan dokumentazioa ere, eta nire gain hartzen dut dagokion erantzukizuna (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioaren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaraturik dena betetzen dela egiaztatuzko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

Eta horrela jasota gera dadin, eta dagozkion ondorioak izan ditzan, adierazpen hau sinatzen du:

.....(e)n , 2022ko .....ren .....(e)an



(Ordez kariaren sinadura)